

Euskal AEn 2018an 3.351 ezkontza desegin ziren, aurreko urtean baino % 5,7 gutxiago

Gehienak, 3.231, dibortzio zuzenak izan ziren (aldez aurreko legezko banantzerik gabe); halaber, 116 banantze eta 4 deuseztasun egon ziren

2018an 3.351 ezkontza hautsi ziren Euskal AEn, hau da, aurreko urtean baino % 5,7 gutxiago, Eustatek egindako datuen arabera. Haustura horietatik, % 15,2 Araban izapidetu ziren, % 53,8 Bizkaian eta % 30,9 Gipuzkoan. Ezkontza haustura ezkontza-aldiaren bukaera da, deuseztasun, banantze edo dibortzio zuzenengatik, alegia aurretiko legezko banantzerik gabeak.

Zuzeneko dibortzio guztietatik, 2.533 elkarrekin adostutakoak izan ziren, eta 698 auzibidekoak; ondorioz, azken horiek % 7,8 murriztu ziren. Banantzeen kasuan, 88 bi aldean adostasunezkoak izan ziren, eta 28 auzibidekoak.

Euskal AEko ezkontza-hausturak, sententziaren arabera

	2018	2017	Δ %
Guztira	3.351	3.555	-5,7
Sententzia mota			
Adostasun gabeko dibortzioa	698	757	-7,8
Adostasun dibortzioa	2.533	2.656	-4,6
Deuseztasuna	4	1	
Adostasun gabeko banaketak	28	23	21,7
Adostasun banaketak	88	118	-25,4

Oinarria: Eustat. Ezkontza-hausteen estatistika


Ezkontza-hausturen % 62,4tan, bi ezkontideek batera aurkeztu zuten demanda; % 23,9tan, emazteak, eta soilik % 12,5etan, senarrak.

Hausturen % 36,5 ezkontzaren hamargarren urteurrena baino lehen gertatu ziren, eta % 27,3 20 urtez elkarrekin bizi ondoren. Banantzeen kasuan, ezkontzen % 59,5ek 15 urtetik gorako iraupena zuten. Zuzeneko dibortzioaren ondorioz desegindako ezkontzek, batez beste, 15 urteko iraupena zuten, 24 urtekoa legezko banantze baten ondoren desegindakoen artean.

Desegindako ezkontzen % 36,8tan ez zegoen adin txikiko seme-alabarik edo adin nagusiko menpekorik; % 52,8tan adin txikikoak besterik ez zeuden; % 4,7tan adin nagusiko menpekoak besterik ez; % 5,6tan adin txiki eta nagusiko menpekoak.

Seme-alabekiko ezkontzen % 51,7tan mantenu-pentsioa aitaren ardura zen; % 6,1etan, amarena; % 42,2tan, biena.

**Gaur egun ezkontza disolbatuaren batez besteko iraupena (urteak),
epai motaren, ezkontzaren eta ardura peko adingabeen arabera**



Oinarria: Eustat. Ezkontza-hausteen estatistika

Adin txikikoen zaintzari doakionez: amarena, kasuen % 49,9tan; aitarena, % 7tan; biena, % 43tan.

Dibortzioak, guztira, 3.596 izan ziren 2018an

Dibortzioei dagokienez, 2018an 3.596 dibortzio izan ziren guztira; 365 kasutan legezko banantze bat zen aurretik, eta 3.231 zuzeneko dibortzioak izan ziren.

3.558 bikote heterosexual dibortziatu ziren; 38 homosexual, 18 gizonezkoenak eta 20 emakumezkoenak.

Dibortzio heterosexuali dagokienez, kopuru handiena 40 eta 49 urte bitarteko adin-tartean gertatu zen, bai gizonen kasuan, bai emakumeen kasuan, eta dibortziazatutako pertsona guztien % 40 eta % 42,2 izan ziren, hurrenez hurren. Dibortziazatutako emakumeen batez besteko adina, 46 urte; gizonena, 48.

Ezkontideen nazionalitateari dagokienez, gizonen % 11,1 atzerritarrek ziren; emakumeen kasuan, % 10,9 inguru.

Ezkontideen egoera zibilari erreparatuta, orain desagindako ezkontza egin zutenean, emazte ezkongabeak % 91,8 ziren, senar ezkongabeak baino pixka bat gutxiago (% 92,7).

Ezkontide gehienak Euskal AEn bizi ziren dibortzioaren egunean, baina gizonen % 3,9k eta emakumeen % 2,5ek Euskal AEtik kanpo zuten egoitza.

2018an 116 banantze eta lau ezkontza-deuseztasun izan ziren

2018an izandako 116 banatzeetatik, % 75,9 bi aldean adostasunez egin zen, eta % 24,1 auzibidez ebatzi zen.

Banantze guztiak bikote heterosexualenak izan ziren; banandutako emakumeen batez besteko adina 50 urtekoa izan zen, eta gizonena 52 urtekoa.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62